

EKAITZ

Musika-tresnak

1. Ekaitz.....panderoa
2. Lorea.....klabeak
3. Tximeleta.....kaskabiloak
4. Sugandila.....marakak
5. Txoria.....ur-txilibitua
6. Igela.....guiroa

Afrikako sabana zabalean lehoi bat bizi zen oso ausarta. Ekaitz zuen izena, (1) eta egun guztian saltoka ibiltzen zen.

Besteak ez bezalakoa zen Ekaitz: gainerako lehoi guztiak landan lasai-lasai zebiltzala, halako batean, korrika hasten zen alde batetik bestera; gero, bat-batean, lore polit baten ondoan gelditzen zen (2), edo tximeleta bati begira (3), sugandila bati (4), edo txoriren bati (5). Gauetan putzuetara joatea ere izugarri gustatzen zitzaion, igelak korroka egiten entzutera (6).

Ama oso kezkatuta zegoen Ekaitzek lagunik ez zuelako, eta horrela esaten zion:

—Zergatik ez zara beste lehoiekin jolasten? Zergatik gustatzen zaizu hainbeste bakarrik egotea?

Ekaitzek amaren hitzak entzuten zituen, baina orduan, korrika hasten zen alde batetik bestera; gero, bat-batean, lore polit baten ondoan gelditzen zen (2), edo tximeleta bati begira (3), sugandila bati (4), edo txoriren bati (5). Gauetan putzuetara joatea ere izugarri gustatzen zitzaion, igelak korroka egiten entzutera (6).

Urteak joan ziren, eta Ekaitz lehoi handi eta ederra bihurtu zen (1).

Egun batean zirkura eraman zuten. Agertokira irten bezain laster, jendea liluratuta gelditu zen hain lehoi itxurosoa ikustean.

Agertokian korrika joan-etorri batzuk egin zituen eta, bat-batean, seko gelditu zen burdin-hesiaren aurrean, begiak zuzen-zuzen zerbaiti begira (1). Lehoi-hezlea alde batetik bestera mugitzen hasi zen orduan, Ekaitzen arreta bereganatu nahian, baina ez zegoen zer eginik.

Zeri demontre zegoen begira? Burdin-hesiaren atzean emakume batek buruan loredun kapela zeukanez, ba, lore haiexei zegoen begira (2).

Ekaitzek ez zuen zirku-lanetarako balio (1).


Gauzak horrela, Afrikako sabanara itzuli zen, eta hantxe bizi da. Halako batean, korrika hasten da alde batetik bestera; gero, bat-batean, lore polit baten ondoan gelditzen da (2), edo tximeleta bati begira (3), sugandila bati (4), edo txoriren bati (5). Gauetan putzuetara joatea ere izugarri gustatzen zaio, igelak korroka egiten entzutera (6).

Eta egia edo gezurra, bi begien erdian... sudurra.


1. Ekaitz.....PANDEROA




2. Lorea.....KLABEAK




3. Tximeleta.....KASKABILOAK



4. Sugandila.....MARAKAK



5. Txoria.....UR TXILIBITUA



6. Igela.....GUIROA

